

## AURKEZPENA

Azken hamarkada hauetan, aldaketa ugari gertatu dira nazioarteko harreman ekonomikoen eta lanekoen esparruan. Aldaketa horiek guztiak, batzuetan oso modu sinplista eta erredukzionistan, «globalizazio» terminoarekin identifikatzen dira. Hala ere, globalizazioaren ideia horrek fenomeno eta transformazio-prozesu batzuk hartzen ditu bere baitan; fenomeno eta prozesu horiek hain dira konplexuak, ezen beharrezkoa baita globalizazioa ikuspegi ezberdinetatik aztertzea (besteak beste, ekonomiaren, gizartearen, erakundeen eta politikaren ikuspegietatik). Lan-merkatua da, zehazki, gertatutako aldaketa horiek gehien kalte-tutena, eta horren eraginpean, lurralde- eta gizarte-mailan oso ondorio ezberdinak dituen lan-harremanen eredu berria sortu da.

Globalizazioari buruzko pentsamolde nagusi horren azpian diskurtso ideologiko neoliberala dago; horren arabera, merkatu-askatasuna globalizazioari dagozkion interpretazio-logika, tresnak eta programa politikoa zehazten dituen ortodoxia bihurtzen da. Lehiakortasun, pribatizazio, malgutasun eta desarauketa moduko kontzeptuak oinarri gisa hartuta, lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketek gutxienez hiru alderdi nagusi barne hartzen dituzte: ekonomia eta ekoizpena berregituratzeko prozesuak eta horiek espazioan duten eragina (deslokalizazioak, eremuen araberrako integrazioa), enpresa transnazionalak izanik protagonistak; ekoizpen-prozesuaren eta lanaren antolaketan gertatzen ari diren aldaketak (langabezia, enpleguaren prekarizazioa); eta erreforma politikoak, nagusiki lan-harremanak desarautu eta desberdintasun sozialak gehitu izanaren ondorio.

Era berean, pixkanaka errotzen eta hedatzen joan da prozesu hau atzerazina delako ideia; horren arabera, globalizazioa geldiezina da, errukigabeko aurrerapen teknikoaren ondorioa baita. Tesi hori bera nazioarteko hainbat foro ofiziale-tan adierazi da, besteak beste, 2003an New Yorken egindakoan; bertan adierazitakoari jarraiki, globalizazioa, aurrerapen teknologikoaren ondorio sailhestezina dena, pobrezia errotik bukatzeko dagoen modu bakarra da. Hala ere, pentsamolde nagusi horri aurre egiteko, pixkanaka-pixkanaka beste pentsamolde bat sortzen hasi zen, globalizazioaren aurkako foroetan (besteak beste, Porto Alegrekoan) eta ondorengo beste topaketa batzuetan islatu zena; horietan guztietan beste mota bateko globalizazioa eta beste mota bateko mundua posi-

bleak direla defendatu zen. J.L. Sampedrok dioen bezala (2003, 91. or.), «guztiontzako mundua, guztiona baita, eta ez bakarrik gorantz doan globoaren ontzitxoan daudenena». Ekar ditzagun, berriz ere, Sampedroren hitzak: «Kontrako bi tesi. Nola pentsatu: New York edo Porto Alegre?»<sup>1</sup>

Umilki espero dugu Lan Harremanak aldizkariaren ale hau osatzen duten artikuluek eztabaida honetan ideia berriak barneratzen eta ideologia globalizatzaille ortodoxoenaren zenbait arrazoibide eta iritzi ezagutarazten lagun dezatela. Arriola eta Vasapollo irakasleen artikulua zehazki kapitalaren eta lanaren arteko gatazka lantzen du egun munduan nagusi diren metaketa-baldintza berriak aintzat hartuta eta, sakonki hausnartu ondoren, fase berri honen kontraesan- eta gatazka-alderdi larrienak aztertzen ditu, gizartearentzat beste aukera bat sortzen lagunduko duen irtenbidea aurkitze aldera. Vasapollo irakasleak idatzitako artikuluan, aldaketa horiek lan-merkatuan dituzten ondorioak aztertzen dira; izan ere, aldaketa horiek, kapitala berregituratzeaz gain, soldata baxuko eskulana ekarri dute, deszentralizatuta, askotan gutxi arautua eta gizarte-bizitzan oro har eragina duen malgutasunaren menpe dagoena. Bestalde, Fernández Steinko irakasleak oso ikuspegi iradokitzailea ematen digu demokrazia ekonomikoaren kontzeptuari buruz: bere ustez, demokrazia ekonomikoa kapitalismo globalizatzaileari aurre egin diezaiokeen estrategia da, baita kapitaletik eta, zehazki, enpresa multinazional handietatik eta hauen interes ekonomiko globaletatik babesteko herritarrek dituzten eskubideei bultzada berri emateko biderik laburrena ere.

Jarraian, Zubero irakaslearen artikuluan, makina bat elementuk adierazten digute egungo globalizazio neoliberalaren prozesuak eragin handia izan duela lan-merkatuan eta langileengan, horren ondorioz, borrokarako eta negoziatziorako ahalmena ikaragarri murriztu baitira. Baina, Zubero irakaslearentzat, gaur egungo faseak aukera berriak ematen ditu kapitalisten aurkako borrokarako eta langileen mugimenduak borroka horietan modu aktiboan parte hartu nahi badu, bere errebindikazioen eduki moralak berreskuratu behar du. Bestalde, Baylos irakasleak lan-harremanetan izandako aldaketen eremura ekartzen gaitu eta nazioaz haraindi dagoen lan-harremanen eremu berria arautzeko formula berriak aurkezten dizkigu; eremu hori Estatuak ekonomia arautzeko duen ahalmena bat-batean murriztu delako, Gizarte Estatu pixkanaka desegiten joan delako eta enpresa transnazionala munduko ekonomian etengabeko protagonista delako sortu da.

Zabala irakaslearen artikuluan, globalizazioaren eta ekoizpen- eta finantza-prozesuen oinarrian dagoen esparru neoliberalak talde ahulengandak izan dituen ondorio negatiboak eta eredu horren ezaugarri edo joerak aztertzen dira. Tesuinguru horretan, globalizazioak emakumeen eskubide ekonomiko eta soziale-

---

<sup>1</sup> Bi aipamen horiek José Luis Sampedroren «El mercado y la globalización» liburukoak dira (2003, Ediciones Destino, Bartzelona).

tan eragindako aldaketak xehetasun osoz aurkezten zaizkigu, eta beste esparru berri bat sortzen lagunduko diguten irizpideetako batzuk aipatzen dira.

Bestalde, Lertxundi eta Hagemeisterren artikuluak nazioartean giza baliabideak bideratzeko erabiltzen diren estrategiak aztertzen ditu eta orain arteko ekarpenetan gehiago sakontzen ahalegintzen da, estrategia horien kostu erlatiboa balioztatze aldera. Horretarako, azterketa egiterakoan, transakzio-kostuen teoria eta baliabideen eta ahalmenen teoria integratzen dituen ikuspegi berria hartzen du oinarri gisa.

Amaitzeko, Rubio Ardanaz eta Akizu Aizpiri irakasleen artikuluak gizarte-sisteman (politikoan nahiz kulturalen) zenbait balio-aldaketa egin behar direla aipatzen du berriz ere, baina kasu honetan globalizazioa eta garapen iraunkorra elkartzen dituen ikuspegi ezberdinetik. Aldaketa horiek ez dira soilik balio pertsonaletara edo sozialetara mugatu behar (ez dugu ahaztu behar, hala ere, balio horiek oso garrantzitsuak direla iraunkortasunaren ildotik doazen jokabideak geureganatzeko); are gehiago, aldaketa horiek gobernatzeko moduan, erabaki kolektiboak hartzeko moduan eta, bereziki, botere ekonomikoaren banaketan ere eragina izan behar dute.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN  
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria  
U.P.V./EHU